

II

ILTZALLE BAT BEZELA

Musika : Julian Lekuona
Itzak : Julian Lekuona

I

Iltzalle bat bezela
emen naramate;
bi eskuak loturik
mundutik aparte.
Errurik ez dutela
azaldu nai nuke.
Egia nai dunantzat
emana dut merke.

II

Egia esan eta
zigorrez erantzun,
gure bizkar moretan
diteke irakur.
Egia utzi eta
obe'te da entzun,
munduak esandako
zortzi milla gezur.

III

Nola nai dela ere
egirik ez utzi,
naiz zigorrez laztandu
zure gorputzari.
Gure eginkizuna
eman munduari,
egiak giartzen dun
indar berri ori.

EUSKAL EMIGRANTEN ABESTIA

EZ DUT NAI

Musika : Julian Lekuona
Itzak : Julian Lekuona

Errepika:

Ez, ez dut nai, ez, ez, ez.
Ez olako zibilizaziurik.

I

Kaiolaren adarrak
ditugu alboan.
Eskuindarrek esku
zabaldu juxtuan.
Zigor indarren menpe
tiroak gogoan.
Orrela bizitzerik
ez dago munduan.

II

Poliziak nunaitik
zerbait egitean,
pentsatu arazi nai
makil indarpean.
Irudi du gerala
kaiola batean
jarritako txoriak
fusillen menpean.

III

Orregatik ez dut nai
gizonen kutsurik,
zibilizaziuaeren
sasi-jaungoikorik.
Libre nai dut biotzez
Libre loturetik
Basurdearen gisa
ortzak estuturik.